

## **Nafarroako eta NUPeko hauteskundeak**

**Errektore eta Foru Gobernu pluralisten arteko lankidetzak bermatuko ditu kalitateko ikasketa lerroak euskaraz.**

**\*Pakita Zabaleta.**

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) euskarazko ikasketa lerrorik ez izatea ez da unibertsitateko arazoa bakarrik. Arazo politikoa da; izan ere, Foru Parlamentuak erabakitzen ditu herritarren hizkuntza eskubideak, hark sortu du eta finantzatzen du unibertsitatea eta, Gobernuarekin batera, hark kontrolatzen du unibertsitatearen kudeaketa. Gizartearen arazoa ere bada, haren ondorio negatiboek Nafarroako gizarte plural eta askotarikoan eragina dutelako. Euskarari buruzko Foru Legean (EFL, 19, 24.1, 25.1 art.) eta Estatutuetan (119. art.) ikasleei euskaraz ikasteko ematen zaien eskubidea bermatzea nahi duten herritar pluralistengan du eragina. Batxilergoa euskaraz egin ondoren unibertsitatera iristen diren ikasleengan du eragina, hizkuntza horretan ikasten jarraitzeko askatasunik gabe gelditzen direlako. Azkenik, zerbitzu publikoetan euskaraz aritzeko eskubidea duten herritar elebidunengan du eragina, unibertsitateak ez duelako profesional eta funtzionariorik prestatzen euskaraz lan gaitiaz komunikatzeko. Baina legeen kontrako kudeaketa salatzen duen arazo unibertsitarioa ere bada. Arazo zaila gainera, irakasleen artean erresistentziak sortu direlako konpondu ahal izateko. Arazoaren konponketarako funtsezkoa delako irakasle elebidunentzako lanpostuak sortzea eta irakasle lobby indartsu batek gogor egiten diolako bere jokabide endogamikoa (unibertsitate askotako gaitz endemikoa) galaraziko lukeen lanpostu elebidun horien sorkuntzari. Beraz, arazo korapilatsua da. Arazo hori abiatu bada eta jarraitzen badu, ezinbestekoa izan da pluralismoaren aurka zeuden edo dauden Nafarroako gobernuen eta NUPeko errektoreen lankidetzaz izatea. Batzuetan, esku hartuta emandako lankidetzaz eta, besteetan, bakoitzari zegokion zereginari uko eginez amandakoa.

Arazo hain korapilatsua deskribatzeko, bere jatorria eta bilakaera aztertu behar dira. Urralbururen azken Gobernuak abiatu zuen arazoa, unibertsitate sortu berriarentzat "Harvard plana" diseinatu zuenean. Plan horrek euskal ideologia nazionalistari gabeko unibertsitatea sortzea zuen helburu edo, Kymlickaren arabera, estatuko ideologia nazionalistako unibertsitatea. Helburu horren atzetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak baztertu ziren, eta irakasleak hautatzeko erabili ziren izangaien zerrendetan haien sailkapen ideologikoa egin zen sarbidea emateko edo ukatzeko. Horregatik, Burilloren lehen errektorealdian, NUPek elebakartasuna ezarri zuen eta, gainera, Zaragozako Unibertsitateak sorturiko Irakasle Eskolaren euskarazko lerroak, ezabatu zituen. Lerro horiek García Blasco errektoreak ezarri zituen berriro. Errektore horren agintaldian onetsi zen, baita ere, euskararen erabilera ikasketetan sartzeko irakasle elebidunen lanpostuak sortzen zituen Plan bakarra. Hain zuzen ere, hurrengo errektoreak, Pérez Prados jaunak, bertan behera utziko zuen plana.

Arazoaren bilakaera aztertzeko, Pérez Pradosen eta Burilloren ekintzei erreparatzea komeni da, horiek izan baitira Estatutuak onetsiz geroztik NUPa modu autonomoan kudeatu duten errektore bakarrak. Azterketa horrek erakusten du hamabi urtean (Pérez Pradosen bi agintaldi eta Burilloren agintaldi bat) gaztelania hutsa erabiltzearen arazoa areagotu dela. Batez ere, NUPera iristen hasi diren ikasle elebidunen kopuruek aukera ematen dutelako ikasketa lerroren bat euskaraz sortzeko, batxilergoa euskaraz egin ondoren euskaraz jarraitzeko eskubidea eskatzen duten

ikasleentzat. Aipatu errektoreek ez dute eskubide hori bermatu, hizkuntza politika bera egin dutenez. Biek gaztelania hutsean sortu eta mantendu dituzte ikasketa lerroak. Biek utzi diote denborari joaten eta ez dute esku hartu eta, bai, aldiz, edozein ekimen oztopatu euskara ikasketetan sar ez zedin legezko plangintza baten bidez, nahiz EFLk eta Estatutuek bestela eskatu. Biek jarri diete betoa irakasle elebidunen lanpostuei, Irakasle Eskolako lerrokoei izan ezik, lehentxoago aipatu baititugu. Erabili dituzten botere estrategiak dira errektore horien hizkuntza politiken arteko alde bakarra. Izan ere, Pérez Prados estrategia gogorak erabiltzeagatik nabarmendu zen, hala nola behin eta berriro poliziarengana jotzeagatik protestak isiltzeko edo ikasleei euskaraz ikasteko eskubidea kenduko liekeen legea Parlamentuan eskatzeagatik. Eskaera horrek ez zuen aurrera egin Lizarberen PSNk kontra egin zuelako. Aldiz, Burillok botere biguneko estrategiak erabili ditu, engainagarriak eta leunak baina eraginkorragoak helburu bikoitza lortzeko, azken finean antzeko politika egin duelako baina campusean lasaitasuna mantenduz.

Burilloren estrategien adibidea da Errektorearen (?) proposamenaren ondorioz NUPeko Gobernu Kontseiluak (?) onarturiko “NUPen hizkuntza plangintza diseinatzeko oinarriak”. Oinarri horien garapena “Euskararen Plangintza Estrategikoa” eta “Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskara erabiltzeko jarraibideen proposamena” araudien bidez egin berria delarik. Araudi horiek ez dituztelako bermatzen Euskararen Foru Legeak (19, 24.1 eta 25.1 art.) eta NUPeko Estatutuak (119 art.) onartzen diren ikasleen hizkuntza eskubideak, bere onarpenerako ez direlako Estatutuetako (120 eta 124. art.) prozedurak jarraitu eta ez dutelako irakasle euskaldunentzat behar diren lanposturik sortu (Est. 121. art.). Aldiz, unibertsitatean indarrak ez duen Foru Dekretua (29/2003) erreferentetzat hartzen dute (?). Zuzenbidearen aurkako jarduketan adibide garbia, Nafarroako Auzitegi Nagusiak (NAN) ezarritako doktrinaren arabera. Lehendabizi, legezketasun printzipioaren aurkako ekintzak dira, eta botere publikoak antolamendu juridikoaren mende egon beharraren aurkakoak (CE, 9.1 art.). Printzipio horren arabera, Foru Parlamentuari dagokio legea egitea euskaraz unibertsitateko irakaskuntzan izan behar duen erabilerari buruz; izan ere, “Unibertsitate Publikoaren Estatutuek Legeak ezartzen duenera igortzen dute euskararen kontuan, hau da, Euskarari buruzko Legearen aginduetara, aplikazio orokorrekoak direlako” (NAN, 1998/12/09ko epaia). Bigarrenik, autonomia unibertsitariorako funtsezko eskubidearen aurkako ekintzak dira, horren arabera Unibertsitateko Klaustroarena baino ez baita unibertsitatearen barne funtzionamenduaren arauketa. Eskubide horrek “legezkotasunaren kontrola” besterik ez du onartzen “baina ez egokiera edo komenigarritasunaren kontrola, ezta kontrol tekniko hutsa ere estatutuen arauen testua hobetzeko” (NAN, 1999/01/04ko epaia).

Aztertu diren errektoreen eta gobernuen estrategien ondorioz, gaur egun, NUPek ikasle elebidunen zati txiki baten eskaera baino ez du betetzen, Irakasle Eskolako euskarazko bi lerroetan ikastea aukeratzen dutenena, alegia. Eskaera duten gainerako ikasketetan, irakasgai bat edo beste eskaintzen dira, halabeharrez ikasketa horietan gaztelaniaz aritzeko lanpostua eskuratu duten irakasleak euskaldunak izan eta euskaraz irakasteko prest daudelako. Hau da, halabeharraren kontua da euskarazko irakasgaiak izatea eta irakasle batzuen borondatearena eta, hortaz, ez dago euskarazko ikasketa lerrorik, gutxieneko koherentzia, kalitate eta egonkortasunarekin. Izan ere, euskarazko lerroen plangintzak, gaztelaniazkoetan gertatzen den bezala, irakasle lanpostuak sortzea eskatzen du. Hau da, hizkuntza eskakizuna edo euskaraz jakin beharreko baldintza duten lanpostuak eta, lehen eta orain, erabateko betoaren mende daudenak. Beto horrek

tratu baztertzailea sortzen du batxilergoa kalitate egiaztatutako euskarazko lerroetan egin ondoren, D ereduan, unibertsitatera iristen diren ikasle elebidunentzat. Tratu baztertzaile horrek ikasketa hizkuntzaz aldatzea edo euskara, halako eta halako irakasgaitan, halabehararen mende, erabiltzera behartzen ditu, aldiz, gaztelaniazko lerroetan bermatzen den kalitate eta egonkortasun berdina bermatu beharrean.

Azkenik euskararen arazoak izaera politikoa duela azaltzeko beharrezkoa da bi ekintza aztertzea. Lehenengoa, gogoan izan behar dela Pérez Pradosen eta Burilloren agintaldietan, hiruko gobernualdi laburrean izan ezik, pluralismoaren aurka dagoen UPNk izan duela gobernu bere esku. Bigarrena, UPNko gobernuak aipaturiko Errektoreekin elkarlana egin dutela, kontrolari uko eginez. UPNko gobernuak ez dutelako inongo kontrolik egin NUPen Euskararen Foru Legea betetzen ote zenetz. Kontrola, soilik, Parlamentuko gutxiengoko talde pluralistek egin bait dute Pérez Pradosen eta Burilloren agerraldiak eskatu izan dituztenean. Oso adierazgarria da UPNko Gobernuaren kontrol gabeziaren esanahia ulertzeko berriki gertatu den beste kasu batekin konparatzea, non Gobernu horrek bere alderdiaren aldeko interesa izanik, unibertsitatearen kudeaketa zorrotz kontrolatu baitu. Tuterako unibertsitatearen campusa dugu kasua. Foru Legea argitaratu ondoren eta UPNko Gobernuak eginiko kontrolaren eraginez, NUPEk azkar baino azkarrago sortu baitu campus hori.

Ona da gertaera horiek guztiak gogoan izatea Nafarroako hurrengo hauteskunderi gaizkiak jakinda buru egiteko. Aukera bat dira eta erronka bat kultur askatasunaren eta pluralismoaren aldeko aldaketa lortzeko. Hauteskundeetako pronostikoak egia bihurtzen badira, NUPEk, bere programan legezko araudi guztiak, Estatalak, Nafarroakoak eta Estatutua, betetzeko konpromiso zehatza hartu duen errektoregai pluralistena hautatuko du eta, gero, herritar guztiek gehiengo pluralista izanen duen Foru Parlamentua. Emaitza horiek, egia bihurtzen badira, Nafarroako eta NUPEko botere publikoen elkarlana isladatuko da legezotasunaren betetzean eta bere kontrolean eta kalitateko zenbait ikasketa lerro euskaraz sortzean. Botere publiko horien lehenengo eginkizuna Burilloren agintaldiaren bukaeran Zuzenbidearen aurka onarturiko euskarari buruzko araudiak bertan behera uztea izango litzateke. Aldiz, hauteskundeetako pronostikoak betetzen ez badira, Nafarroako herritar pluralistek beste lau urte gehiago itxaroten jarraitu beharko dute.

**\* Gizarte Psikologiako irakasle titularra, Foru Gobernuko Euskararen eta Hizkuntza Politikako Plangintzaren buru izandakoa.**